

2025-09-26 BARIKUA / 1.035. ZENBAKIA / 23. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM

"Lehen gazteena nintzen; orain beste rol bat dut"

Bost urteko parentesiaren ondoren, Aroa Gorostiza txirrindularitzara bueltatu da 26 urte gaz. Oso maila onean dabil. Besteak beste, Euskadiko txapelketa irabazi du. / 20



EUSKAL ARDI MOZTAILEAK LEHIARAKO PREST

Zapatuan Euskal Herriko eta Nazioarteko Ardi Moztaileen Txapelketak jokatu dira Abadiñoko probalekuan. Euskal Herriko eta nazioarteko 80 moztaille ibiliko dira lehian; tartean, Durangaldeko lau. / 8



Durango Fashion
Gauak herriko arropa eta osagarri denden denboraldi berria erakutsiko du / 5

Jon Gomez Garai:
"Ez dugu gura Bizkaiko Erromeria Eguna egun ludiko hutsa izatea" / 2-3



EH Bildu: "Iurretako plan orokorreko 510 etxeetatik 240 babesekoak izan beharko lirateke" / 11



Urkiol
E.S. Oñandiko E.S. Iurretako

Urkiol gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbaok egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA
📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

Aritz Maldonado DURANGO

Danok Pro taldeko kideak eta Bizkaiko Foru Aldundikoak buru-belarri dabilta azken kontuak lotzen urriaren 4an Durangon egingo duten Bizkaiko I. Erromeria Egunerako dena ondo lotuta izateko. Erromeria "bere kontzepturik zabalenean" ulertu eta batzeko baliatu gura dute aukera. Erromeria ulertzeko modu desberdinek osatuko dute egitaraua; Ibon Koteron eta Julen Begoña albokariak, eta Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak doinu tradizionalagoak jorratuko dituzte, eta gauean, Plateruena kulturagunean, lau erromeria talde gazteago eta modernoago arituko dira: Gautegun, Zazpizar, Altxa Porru eta Zutik. Baina musika eta dantza ez dira izango jaialdiko eskaintza bakarra. Bartolome Ertzilla musika eskolan berbaldi eta tailerrak egingo dituzte, "kultur ezagutza hedatzeko asmoz". "Gure ekarpena egin gura diogu kultura honi, jendeak jakiteko kultura hori nondik datorren", aurreratu du Gomezek.

Nondik dator Bizkaiko Erromeria Eguna egiteko ideia?

Musikan eta erromerietan gabilzan hainbat musikari gaude honen atzean. Urteak daramatzagu honetan, nire kasuan hoge, eta urteekin ikusi dugu gure jarduna aldatzen joan dela erromerietan. Gu formatu tradizionalago batetik gentozen, baina urteekin aldatu eta egokitu egin da; adibidez, orain elektronikoa go bihurtu da, baina, funtsean, erromeriak oso bizirik jarraitzen du. Konturatu gara gaur egun gazteagoentzat eta formatu elektronikoa egiten dugun honek erromeria izaten jarraitzen duela. Gure aurreragokoek txistuek eta danbolinagaz egiten zutena ere erromeria da, eta kalean dantzan zeudenean ere erromeria zen. Hortaz, erromeriak kontzeptu eta formatu asko duela konturatu gara. Gure aita-amamei edo Durangaldeko gazte bati erromeria zer den galdetuz gero, erantzuna desberdina izango da, baina denak dira erromeria. Bizkaiko Erromeria Eguna kontzeptu edo ideia horiek guztiak batzeko asmoz jaio da. Erromeria batek formatu desberdinak izan ditzake; adibidez, izan daitezke trikia eta panderoa, alboka eta panderoa, izan daitezke kalerik kale

"Erromeriak garai berrietara egokitzen jakin du"

JON GOMEZ GARAI DANOK PRO EKOIZTETXEKO ETA OXABI TALDEKO KIDEA

Jon Gomezek hamarkada bi baino gehiago daramatza plazetan erromeriarik erromeria; formatu desberdinak erakusteko asmoz, Bizkaiko Erromeria Eguna antolatzen dabil



Jon Gomez Garai.

ibiltzea dantzan, kalejiran kantuz, edo dantzan plaza batean. Musikagaz gidari, dantza eta pausoak izan daitezke, edo izan daitezke gaur egun gazteentzat formatu handiagoan eta doinu elektronikoen egiten dena, edo izan daitezke gaur egungo edo aspaldiko bertsioak. Eta konturatu ginen ez zegoela hori guzti hori batzen zuen egunik, ez zela existitzen. Bizkaiko Foru Aldundiari bota genion proposamena, eta eurek bultzatu gaituzte hau egitera, erromeria oso geurea delako, euskalduna, baina baita nazioartekoa ere. Eta zaharra bezain modernoa ere bada. Horrek aurrerapauso hori ematera animatu gintuen, eta publiko guztiarentzako moduko egun hau antolatzeraz.

Behin hau esanda, urriaren 4an lehenengo Bizkaiko Erromeria Eguna egingo dugu Durangon, baina urterik urte Bizkaiko beste eskualde batzuetara lekualdatzea da gure asmoa, Ibilaldiagaz, Eskola Publikoaren aldeko jaia-gaz eta Bizkaiko Dantzari Egunagaz egiten den moduan.

Zergaitik Bizkaiko Erromeria Eguna Durangon?

Durango, berez, kulturaren hiriburua delako Euskal Herri osoarentzat. Hala izaten da abenduan Durangoko Azokagaz, baina guk, Durangoko Udalaren laguntzagaz, abenduko asteburu horretan bakarrik ez, gainerako egunetan ere gura dugu Durango euskararen eta kulturaren hiriburu izatea. Eta jaialdi honek horretan lagunduko duelakoan gaude.

Batetik hori, eta bestetik ezin da ukatu Durango oso herri irisgarria dela, oso azpiegitura onak dituelako eta Bizkaian oso ondo konektatuta dagoelako. Horrez gainera, kulturalki bizirik dagoen herria da Durango, eta herriko talde ugari-gaz jarri gara hartu-emanetan horregaitik.

Zelako harrera izan du proposamenak talde horien artean?

Udal teknikariek helarazi digutenagaitik, taldeek baiezkua eman dute oro har, eta gertu daude parte hartzeko. Egun horretan herriko hamar bat taldek parte hartuko dute eta horrek erakusten du Durangok baduela kultur sare garrantzitsu hori. Aipagarria da ere Erromeria Eguna Durangon izan duen harrera. Antolakuntza aldetik, garrantzitsua da esatea oso pozik eta eskertuta gaudela Erromeria Eguna

izan duen harreragaz eta herri-ko kultur elkarteak bertan izateagaz. Erromeria Eguna mundu guztiarentzat izan behar da eta garrantzitsua da hori etxetik hastea; etxeokak barik, Durangok nekez hartuko du irudi polita.

Hamarkada bitan asko aldatu da erromeria?

Erromeria ez ezik ingurua ere aldatu da denboran zehar, jakina, baina erromeriak garai eta adin berrietara egokitzen jakindu, eta horixe da gakoa, horixe da erromeria pil-pilean egotearen arrazoi nagusia. Ikuspegi teknikitik eta musikaletik, erromeriak bizirik irauten eta garaian garaikora egokitzen jakindu, eta, hain zuzen ere, garai honetako erromeria kontzeptu berriak dira Plateruenean batuko ditugunak. Egunean zehar, beste adin batzuetarako edo zelanbait esatearren beste zalego batentzako moduko eskaintza egongo da; adibidez, umeentzako Goazen!-eko kideek dantzaldia eta berbena egingo dituzte. Alde tradizionalagoa maiteago dutenek Ibon Koteron albokariaren kontzertua ikusteko aukera izango dute. Kepa Junke-

ragaz ibilitakoa da Koteron, eta alboka irauli egin zuen bere sasoian. Bestalde, trikiaren zaleek Zabaleta eta Motriku bikotearen kontzertuagaz gozatu ahal izango dute. Hauek ere Junkeragaz hasi ziren, eta trikiaren mundua irauli eta garai modernoagoak markatzen hasi ziren. Espreski batu ditugu Bizkaiko Erromeria Egunerako, eta eurak berriro elkarrezat jotzen ikustea ohorea da guretzat.

**Egun osoko egitaraua prestatu du-
zue horretarako.**

Bai. Azken finean, Erromeria Egunak ez du bilatzen jai ludiko huts bat. Urriaren 4an Durangora datorrenari ekarpen kulturala ere egin gura diogu. Dena ez da dantza, jana eta edana izango, eta horregaitik daude, adibidez, gaurlu egun ikusteko gatzagoak diren dantza formatu tradizionalagoak. Horrez gainera, ber-

**"MUSIKA ETA DANTZA
EZ DIRA ESKAINTZA
BAKARRAK,
BERBALDIK ERE
EGONGO DIRA"**

baldi eta tailerrak ere egingo ditugu musika eskolan. Dantzan egin bakarrik ez, bertaratzen denak hainbat musika pieza ere entzun ahal izango du; Ibon Koteronenak, aipatu dugun moduan, zein Mirari Azkune txikitilariarenak eta Iker Alvarez eta Aitor Urkiza txistularienak.

Bazkalostean, Oier Araolaza eta Gari Otamendi *dantzan.eus* atariko kide eta euskal dantzetan aditu eta erreferenteak direnak *Korrotik pikutara* berbaldi dantzatua emango dute. Berbaldi praktikoa izango da eta plazako dantzak denboragaz zelan eraldatu diren erakutsiko dute. Adibidez, bikoteka dantzatzen zuten dantza bat laukoteka dantzatzera zelan igaro zen, edo zirkuluan dantzatzen zena lehen, zelan agertokira begira dantzatzen den gaur egun. Bestalde, Gontzal Carrasco trikitilariak trikitia iruditegi kolektiboan zelan aldatu den ikertu du tesi batean, eta tesi hori aurkeztuko du. Gure aitita-amamen garaitik Tapia eta Leturiagaren garaira izan zen aldaketa, eta gero, hortik aurrera, trikitia booma bizi izan zuen Alaitz eta Maiderregaz, Maixa

eta Ixiarregaz zein Esne Beltzagaz azken hamarkadara arte. Azkenik, Ane Albizu Ikerbasqueko ikerlari eta adituak buruko zapia zelan ipini azalduko du. Zapiak ez dira erromeria guztietan ikusten, baina janzkera hori ohikoa izan da beti. Buruko zapia, txapela zein gerrikoa ondo janztearen garrantziaz berba egingo du Albizuk.

Erronmeriek jende gaztea erakartzen jarraitzen dute?

Dudarik barik. Guk erromerietan jarraitzen dugu, kontzertuak ematen, eta gure formatu berriak, elektronikoagoa denak, arrakasta izaten jarraitzen du. Itzela da zenbat gazte etortzen den, euskaldunak izan zein ez! Hori nabarmentzekoa iruditzen zait, eta baita hausnartzekoa ere euskaldunak ez diren zenbat gazte joaten den erromerietara. Hori ikaragarria da, eta erromeria bizi-bi-

**"ZABALETA ETA
MOTRIKU BEREN-
BEREGI ELKARTU DIRA
BIZKAIKO ERROMERIA
EGUNERAKO"**

zirik dagoelako da hori. Hori bakarrik ez, gazte horiei erromeria nondik datorren erakutsi gura diegu, eta Erromeria Eguna erreminta ona izan daiteke horretarako. Azken finean, eurek kontsumitzen dutena nondik datorren erakutsi gura diegu. Gure egitarauan erromeriaren formatu desberdinak ikusi ahal izango dira, lehen esan dudan moduan. Arratsaldean, Ibaizabal plazan, dantzak bikoteka izango dira, gaur egungoak ez bezala. Beraz, bada modu bat erromeriaren formatuak erakusleiko bihurtzeko.

Badaukazu beste ezer gehitzeko?

Herri bazkaria dagoela ere azpimarratuko nuke. Elkarteetako kide, musikari eta artistak bertan izango dira, baina herritarrei ere dei egin gura diegu bertaratzeko, deialdi zabala delako. Gainera, oso giro majoa eta sanaa sortuko da; azken finean, hainbeste erromeriazale egonda... (barrez). Gainera, Luhartzeko lagunak ere izango dira bertan jotzen. Musikari edo dantzari izan ez arren, oso erakargarria izango da. Erromeria Eguna aproposa da modu aktiboan zein pasiboan gozatzeko.

Bte!
Urriak 4
Durango

Aiko • Altxa Porru
Ane Albisu • Errota • Esna Gazte
Etxebarria aita-seme trikitilariak
Gaitero, erraldoi eta buruhandiak
Gari Otamendi eta Oier Araolaza
Gautegun • Goazen • Gontzal Carrasco
Ibon Koteron eta Julen Begoña
Iker Alvarez eta Aitor Urkiza
Larrain Dantza • Luhartz
Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña
Ostikda eletrotxaranga
Sugarri txaranga • Yogurinha Borova
Zabaleta eta Motriku
Zazpizar • Zutik

Bizkaiko
Erromeria
Eguna
2025

Bizkaia **Durango** **18/70** **K** **deitb** **berria** **Beia** **sanboto** **BIZKAIA** **ERROMERIA** **RK** **EMAG** **BAQU** **ERROMERIA** **DANOK**



Durangoko jai batzordeko kideak eta udal ordezkariak asteleheneko agerraldian.

Bulego eta Gatibu, sanfaustoetako hitzordu

Durangoko jai batzordeak eta udalak jaietako egitaraua kaleratu dute. Sukena, Kaparrak eta DJ Kene Gazte Foro Gauean izango dira, eta dantzaldien atalean Luhartzen eta Chaman Orkestraren izenak nabarmentzen dira. Jaiak urriaren 10ean hasiko dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Durargon dena prest dute herriko kale bakoitza jai giroz janzteko. Udalak eta jai batzordeak 160 ekitaldi baino gehiago batu dituzte sanfaustoetako egitarauri. "Mimoz eta kariñoz" prestatu dituzte ekitaldiok, jaiak "anitzak,

zabalak" eta "herritarrek merezi dituzten modukoak" izan daitezke. Batetik, kontzertu handiak daude; Bulegok dantzan ipiniko ditu Ezkurdiko eszenatokira aldera doazenak, eta beste horrenbeste egingo du Gatibuk bere agur birako emanaldietariko bat Du-

rangon eginda. Bestetik, umeentzako emanaldien artean Ene Kantak dago, eta dantzaldiak gurago dituztenek Luhartzegaz zein Patxi eta Konpainia taldeagaz izango dute gerria astintzeko aukera. Gazteek, bestalde, Gazte Foroan antolatutako gauraldia

izango dute zain; han Kaparrak, Sukena, DJ Kene eta Play it! taldeek mugituko dute gazteria, baita Ezkurdiko eszenatokira igoko diren musika jartzaile durangar bik ere: Gorka Perezek eta Sergio Torrabok.

Musikaz gainera, Markeliñeren *Crusoe* antzezlan, Senegalgo zein Ghanako herritarren dantzaldiak, emakumezko xakelarien lehenengo txapelketa, sukalkiak, paellak eta tortilla txapelketak egongo dira.

Erdigunetik auzoetara

Udal ordezkariak azaldu dutenez, aurten "ahalegin berezia" egin dute jaietako ekitaldiak erdigunetik bakarrik egin barik udalerriko kanpoaldeko auzoetan ere egiteko. Tabirako parkean, adibidez, poneyekin eta zaldiekin ibiltzeko aukera izango dute txikienek; Madalenak Chaman Orkestraren dantzaldia hartuko du; Otamotzenan zirku ikuskitzuna eta makillaje tailerrak egingo dituzte; Muruetatorren batxata eta saltsa doinuak izango dituzte, baita txokolatada eta bits jaia ere; Ibaizabalek aireko akrobazia saioak hartuko ditu; San Fauston, auzoan ohikoa duten izaera herrikoiari eutsita, auzotarren paella txapelketa, umeen marrazki lehiaketa, diskofesta eta umeentzako jolasak izango dituzte, besteak beste.

Egitarauko xehetasun guztiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Palestinagazko elkartasun eguna Durangoko txosnetan

Sol Band talde gazatarra txosnetan egongo da, urriaren 12an. Aurtengo txupina Kaletik Gaztetxerak botako du

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko txosnek jaietako egitaraua aurkeztu dute asteon, eta askotariko animazioez eta musika emanaldiez gainera, nobedade baten berri eman dute: urriaren 12an Palestinagazko elkartasun eguna egingo dute. Eta ez hori bakarrik. Iragarri dutenez, "Israel egaz hartu-eman duten enpresen produkturik ez erabiltzea" erabaki du txosna batzordeak, eta hori horrela izan dadin lan egingo du "hurongo urteetan". Bestalde, jai herrikoiak eta parte hartzaileak antolatzeke

egindako lana azpimarratu dute: "Hileak daramatzagu hainbat eragiletako kideak elkartzeko, aurten ere jai herrikoiak eta parte hartzaileak sortu ahal izateko", esan dute. Horren lekuko dira, besteak beste, gazte eguna, paella txapelketa, erreka jaitsierra, tortilla txapelketa edo Etxera eguna. Mozorro egunean ipuinak eta kondairak izango dituzte ardatz; musika eskaintzan Odei, Streetwise, Zeker, Nekktar, Maruxak, Bart Sax, Akerbeltz, Euskoprincess eta Tatta&Denso taldeen emanaldiak batu dituzte,



Txosna batzordeko eragileek martitzenean aurkeztu zuten egitaraua.

besteak beste. Egitarauko ordu-tegi guztiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.

Txosnaguneko giroa urriaren 10ean berotuko da, Pantxikeren etorreragaz. Txosnaguneko ikurak 19:30ean hasiko du Santa

Anatik txosnagunerako kalejira, eragileetako kideek babestuta. Behin txosnagunera ailegatuta, txapligua isiotzea baino ez da faltako. Aurten gaztetxeko kideek jaurtiko dute, "azken urte hone-tako borroka" aldarrikatzeko.

Gizon bat atxilotu dute, bikotekide ohiari eraso egitea egotzita

Jone Guenetxea DURANGO

Segurtasun Sailak jakinarazi duenez, joan zen zapatuan gizon-zeko bat atxilotu zuten Durangoko etxebizitza batean, bikotekide ohiari eraso egitea leporatuta. Ertzaintzak etxebizitza horretan bertan atxilotu zuen. Atxilotua epailearen esku utzi zuten domekan, eta aske geratu zen gero. Durangoko Udalak adierazpena kaleratu zuen gertakaria jakin berritan. Azaldu zuenez, udalak "neurriak bultzatzen jarraituko du, udal erakundeek eta, oro har, herritarrek edozein eraso matxistari behingoan eta irmo erantzun diezaioten, biktimari lehentasuna eman diezaioten" eta "prebentzio-jarduerak garatu daitezke". Era berean, udalak larrialdietarako hainbat helbide eta telefono gogorarazi zuen, hala Indarkeria Matxistaren kontrako Unitatearena (618 79 13 33 / misasi@durango.eus) nola udaltzaingoa (946030010) eta Durangoko polizia-etxearena (944 66 93 00).

Montevideoren eta Durangoren senidetze ekitaldia zapatuan

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangk eta Uruguako hiri-buruak euren arteko senidetzea ospatuko dute zapatuan, ekitaldi batez. Andra Mariko elizpean egingo dute jardunaldia, 18:30ean. Andrea Bella komunikatzaile euskal-uruguaitarrak gidatuko du ekitaldia eta bertako parte hartzaileek Euskal Herriko zein Uruguako kultur adierazpenak oholzaratuko dituzte. Batetik, Durangoko Orfeoiaren emanaldia, eta bestetik, tango doinuak. Johana eta Gabriel tango dantzari bikoteak emanaldia egingo du, eta Walter Cesar Lopez kantari uruguaitarrak Atlantikoaren bestaldeko doinuak ekarriko ditu Durangora.

Ekitaldiaren amaieran, bertaraturikoek Euskal Herriko eta Uruguiko produktu tipikoak doan dastatzeko aukera izango dute. Durangoko Udalak ekitaldian parte hartzera deitu ditu herritarrak. Halaber, Durangoren eta Montevideoren hartu-emanak 2022an hasi zirela gogoratu du.

Kaleko edana isunekin zigortuko dute Durangon

Durangoko udalbatzak hasierako onarpena eman dio kaleko edana arautzeko ordenantzari. 100etik 1.000 eurora arteko isunekin zigortu dezakete kaleko zurruta. Neurriagaz, "bizilagunen atsedena eta herriko kaleen garbitasuna" zaindu gura dituzte

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko udalbatzak alkoholaren kaleko kontsumoa arautzeko ordenantza onartu du eta atea zabaltu dio kaleko zurruta zigortzeko aukerari; 100etik 1.000 eurora arteko isunak ipintzeko eskumena izango du aurrerantzean. Gobernu taldeak "bizikidetza baketsua" bermatzeko helburuz diseinatu du araudi berria, "osasun publikoa, ingurumena eta bizilagunen atsedena" errespetatzeko asmoz. Halantxik plazaratu zuten Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jesica Ruiz alkateordeak, astelehenean, eskualdeko komunikabideekin egindako saio informatiboan. Eta nabardura



Eguaztenean osoko bilkura egin zuten Durangon. DURANGOKO UDALA

bat ere egin zuten: arauak ez ditu jo-puntuari ipiniko "ohiko ostalaritza establezimenduetan erosi eta kalean, tabernaren aurrean, Goienkalean, adibidez" kontsumitzen duten edaleak. Horiek barik, udalerriko kale eta plaza zehatzetako edanak ekidin gura dituzte: Andra Mariko elizpean zein *Matute* plazan egiten direnak, gehienbat. "Gure helburua ez da isuna ipintzea, baina badirudi egoera zuzentzeko bide bakarra dela batzuetan. Ordenantza hau gure helburuak betetzeko lagungarri izan daitekeelakoan gaude", azaldu zuen Elkoroiribek astelehenean.

Arau berria aste honetako udalbatzan onartu zuten, eguaztenean. Alde agertu ziren EAJ, PSE-EE eta PP. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak, oster, kontra bozkatu zuten. Josune Escota jeltzaileak azaldu zuenez, azken hileotan herritar askok jo du udalera kexaka kaleko zurrutak eragindako "zarata, gehiegizko kontsumoa eta molestiak" direla eta. Kanpainak egiten ibili arren, horiek eraginik izan ez dutela aitortu zuen, eta, horrenbestez, isuna ipintzeko aukera zabaltu

behar izan dutela. Jesica Ruiz sozialistak zehaztu zuenez, isunekin baturiko dirua zeregin zehatzetarako erabiliko dute, "gazteentzako aisialdi programak sortzeko eta alkoholaren kalteez ohartarazteko". PPko Carlos Garcíaren iritziz, "beharrezkoa eta urgentea" da ordenantza. EH Bilduko Markel Larruskainen esanetan, oster, araudia "zehaztasun handiegirik barik" jaio da: "Ordenantzari zorrotasuna falta zaio, izenburuak hala dioen arren ez delako alkoholaren kontsumoan esku hartzeko ordenantza bat, arazo konkretuei aurre egiteko txostena baino". Larruskain prest agertu zen arazo zehatzei konponbidea emateko, baina ordenantzan "gai asko" nahasten dela azpimarratuta. Herriaren Eskubideko Jorge Varela auziaz harago begiratzera gonbidatu zuen. "Alkoholaren kalteez kontzientziatzea" deitu zuen, "elkarrekin, ikastetxeekin eta eragileekin" lankidetzan. Zinegotzi independenteak ordenantza alternatiboa aurkeztu zuen norabide horretan eragiteko. Azken horrek, baina, ez zuen aurrera egin.

Inkesta baten arabera, etxebizitza da durangarren kezka nagusia

Beste kezka iturriarik handienen artean, osasungintza, segurtasun falta eta aparkaleku falta daude

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangarren pertzepzioa eta gogobetetzea neurtzeko asmoz, Gizaker ikerketa etxeak azterlan bat egin du udalaren enkarguz. Ondorio nagusien artean honako hau dago: herritarrek 8,1 notagaz puntuatu dute, batez beste, udalerriko bizi kalitatea. Hala ere, hobetu beharreko hainbat arlo azaleratu du ikerketak. Etxebizitza da horien artean nagusi. Galdetutakoen % 15ek uste dute etxebizitza dela Durangoko arazo nagusia. Segidan datoz osasungintza publikoari loturiko kezkak, hala nola zerbitzurik eza eta arratsaldeetan pediatria zerbitzurik eza egotea (% 13,8), segurtasun falta eta lapurretak (% 13,8) eta aparkaleku falta (% 12). Koska bat beherago, kutsadura (% 4,8), garbitasun falta (% 4,8), eta gazteentzako eta nerabeentzako aisialdi falta (% 4,3) daude.

Udaleko alderdi politikoak balaratzerakoan, EH Bilduk jaso du puntuaziorik onena (6,4). Atzetik datoz EAJ (5,68), Herriaren Eskubidea (5,65), PSE-EE (4,89) eta PP (3,08). Era berean, herritarrek modu honetan puntuatu dituzte alderdi bakoitzeko buruzagien lana eta kudeaketa: Ima Garrastatxu (6,76), Mireia Elkoroiribe (6,07), Jorge Varela (5,64), Jesica Ruiz (5,31) eta Carlos García (2,98). 2027ko udal hauteskundeei begira, honako gorabehera hauek gertatu daitezkeela aurreikusitu du ikerlanak: EH Bilduk eserleku kopuruari eutsi edo bat gehiago irabaziko luke (9-10 ordezkari), EAJk bere ordezkariari eutsi edo bat gehiago irabaziko luke (8-9), PSE-EEK bere biak mantendu edo bat galdu dezake (1-2), eta Herriaren Eskubideak zein PPK ordezkari bakarrari eutsiko liokete.

64 modelok desfilatuko dute Durango Fashion Gauean

Ekitaldian, L'Atelier dantza eskolako kideak eta Aroa Blanco eta Maite Lopez artista durangarrak izango dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Andra Mariko elizpea pasarelarik distiratsuenen pare jantzita, Durango bere moda gaualdirik herrikoienean taularatzeko prest dago. Bariku honetan Durango Fashion Gauean beste edizio bat egingo dute, 20:30ean. Ume zein heldu, 64 durangarrek egingo dituzte modelo lanak eta aurkeztuko dute jendaurrean arropa edo osagarriak saltzen dituzten herriko merkatarien denboraldi berriko materiala. Dendak Baira atxikitako saltoki bakoitzak erakustaldi bat izango du; helduentzako moda establezimenduek bosna *look* erakutsiko dituzte, eta umeen modako establezimenduek seina. Edizio honetan, nobedade legez, Aroa Blanco eta Maite Lopez artista durangarrek aurkezle lanak egingo dituzte. Bestalde, L'Atelier dantza eskolako ikasleek ere emandaldi bi egingo dituzte: ballet



Modelo bat Fashion Gauean. DENDAK BAI

klasikoa izango da bata, eta izaera komertzialagoko dantzaldia bestea. Dendak Baik jakinarazi duenez, ikusleek opari zozketan parte hartu ahal izango dute. Karteleko QR kodea eskaneatuta, 100 euroko bost opari txartel eskuratu ahal izango dituzte.

LABUR-LABUR

Ludoteka, prest

Durangoko Udalak ludotekan inskribatzeko epea zabaltu du. Zerbitzua urritik urtarilerara emango dute, asteburuetan, 17:00etan.

Lauaxeta erakusgai

Arte eta Historia Museoa *Lauaxeta, ametsen egilea* erakusketa egongo da domekara arte. 10 paneletan, poetaren obra, ondarea eta bizitza aletzen dira.

Begirale ikastaroak

Mankomunitateak aisialdiko begirale ikastaroa antolatu du Urtxintxaren eskutik. 150 ordu teoriko eta 160 praktiko emango dituzte. Izen emateak telefono honetan: 944 320 445

Adinekoen eguna

Mankomunitateak eta Durangoko Udalak *Non eta nola zahartu nahi dugu?* mahai-ingurua antolatu dute urriaren 2rako, Adinekoen Nazioarteko Egunaren harira. Plateruenean egingo dute, 18:00etan. Izen emateak telefono hauetan: 946 200 546 / 944 657 451



Leioan EHUK duen kanpusa.

EHUren Leioako kanpuserako autobusak zerbitzu berria du

EHUra doan Bizkaibus-3924 linea Elorriotik irtetzen hasi da, Abadiñon eta Atxondon ere geldialdiak eginez

A. M. ELORRIO

Foru Aldundian lorturiko aurrekontu akordioaren ondorioz, Bizkaibuseko hainbat lineatan autobusak maizago ibiliko dira. Horren adibideetarik bat Leioako EHUren kanpusera doan Bizkaibus-3924 linearena da. Orain, Elorriotik ere irtengo da autobusa (06:35ean eta 07:35ean), eta Atxondon eta Abadiñon ere egingo ditu geldialdiak. Abadiñon, hiru lekutan: Muntsaritzen, Zelaietan eta Zubibitarreko geltokian. Era berean, Bizkaibusek itzulerako bidaia ere indartu ditu. Horrela, 14:10eko

eta 15:10eko errefortzuek Elorrioraino luzatuko dute euren ibilbidea. Ordutegi berri honek, gainera, Durangon Ondarroara doan autobusagaz lotzeko aukera ematen du, bost minutuko itxaronaldiagaz. Aldaketa indarrean da dagoeneko.

Elorrioko Udaltzaia esanetan, aldaketa horiek zerbitzuen arteko koordinazioa hobetu dute. Gainera, "albiste pozgarritzat" hartu du berria; izan ere, herriko ikasleen aldarrikapena izan da urte askoan, eta udalak berak hainbat bider helarazi dio eskaera Aldundiari.



Artxiboko irudi bat.

Zumelegi erreka garbitzeko deialdia egin dute zaturako

Irailaren 27an Elorrioko Zumelegi erreka auzolanean garbitzeko deialdia egin dute; 09:15ean hasiko dira

A. M. ELORRIO

Elorrioko eta Atxondoko Baso Biziak elkarteak deialdia egin du, urtero sasoi honetan legez, Zumelegi erreka auzolanean garbitzeko. Hitzordua 09:00etarako ipini dute, herriko plazan, ordu laurden geroago hasteko. Taldeka banatu eta gero, 13:00ak arte ibiliko dira garbitzen. Deialdia 6 urtetik gorakoentzat da, baina 6tik 11 urtera bitarteko umeek nagusi baten zaintzapean joan beharko dute. Kasu honetan, 11:00etan izango da hitzordua, eta bilketa eurentzat egokitutako gune batean egingo dute, 11:00-

13:00 bitartean. Ondoren, 13:15 aldera, denen artean bildutako zaborra plazan utziko dute, jendaurrean erakusteko. Gero, baturiko zabor guztia jaso egingo dute. Antolatzaileek katiuskak edo galtza-botak eta eskularruak eramateko gomendioa egin dute, eta baita bilketa errazteko baliagarria izan daitekeen edozein material eramatekoa ere: zabor-pintzak, sakaderak eta abar.

Erreka garbiketan parte hartzeko, izena eman beharko da aurretik, Anbotopeko dendan, Iturri kultur etxean edo webgunearen bitartez.

Pulla Azkarretako plana kentzeko eskatu dute

Ekologistak Martxan esanetan, proiektua "komunitatearen interesen aurkakoa" da

A. M. ELORRIO

Ekologistak Martxan elkarteak alegazioak aurkeztu dizkio Elorrioko Udaltzaia Pulla Azkarreta plan partzialari. Hainbat urte, tramite eta prozesu judizialen ondoren, uztailean onartu zuen planari hasiera ematea. Orain, baina, Ekologistak Martxanek alegazioak aurkeztu ditu proiektuak "ondorio sozialak eta ingurumenaren aurkako inpaktu larria" eragingo dituelakoan. "Aurka egiteko arrazoi nagusietarik bat lurzoru emankorra alferrik kontsumitzea da", azaldu dute ohar batean. "Larre eta lurzoru emankor gehiago hil aurretik, abandonatutako industria eremuak birgaitu eta berrerabili beharko lirateke", gehitu dute.



Pulla Azkarreta inguruko artxibo irudia.

Berrizko Kultur Etxeko ekitaldietarako sarrerak, salgai

Urriaren 4an ekingo diote urteko azken txanpari Berrizko Kultur Etxean, Dejaburen 'Itzulera' antzezlanagaz



'Itzulera'. DEJABU KONPAINIA

A. M. BERRIZ

Berrizko Kultur Etxeak ikasturte berriari ekin dio eta urtea amaitu arteko programazioa aurkeztu du. Ohiko legez, askotariko eskaintza izango du: antzezlanak, dantza ikuskizunak, zinea, kontzertuak eta abar. Hasteko, urriaren 4an, Dejabu konpainiak *Itzulera* antzezlanaren taularatuko du. Urrian bertan, Logela Multimedialearen *Semaforoa*, Xpectroren *Zen del Sur* zirku garaikide ikuskizuna eta Bala bikote galiziarren kontzertu berezia egingo dira bertan. Datozen hileetan, besteak beste, Leire Vargasen *Bihotz museo bat* liburuan oinarritutako bertso saioa, *Amak* antzerkia eta Antton Telleriaren *Ninini* baka-rrizketa ere egingo dira. Emanaldi guztietarako sarrerak salgai daude Kultur Etxean bertan, edo webgunean.

Zornotzako San Migel Dudeako jaiak ospatzen dabilta

Eguenean hasita astelehenera bitartean, San Migel jaiak ospatzen dabilta Zornotzako auzoan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzan auzoetako jaiekin jarraitzen dute beste asteburu batez, eta, horrela, irailari jai giroan emango diote amaiera. Oraintsu Ogenbarrenako jaiak amaituta, eguenetik Dudeako San Migel jaiak ospatzen dabilta. Eguenean hasi zituzten jaiak Zornotzako auzoan, txupina jaurtita. Gaur, iluntzean hasiko da jai giroa, Gaztedi Barria txarangagaz; 20:30ean mus txapelketa eta patata tortilla txapelketa egingo dituzte; 22:00etan Francisco Balbuena 'Pancho'

mariatxiak girotuko du gaua, eta festa borobiltzeko, EduGar-Mar-ek musika ipiniko du.

Zapatuan eta domekan ohiko ekitaldiak egingo dira: sukalki eta briska lehiaketak, igel txapelketa eta haurrentzako animazioa. Zapatu arratsaldetik aurrera, festa doinuak nagusituko dira, Xaiborren, Altxa Porru erromeriaren eta DJ Pary & Tiza-ren emanaldiekin; Lekitoko deabruak suzko ikuskizuna egingo dute. Astelehenean, San Migel egunagaz, 12:00etako mezagaz amaituko dituzte jaiak.

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behe
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

@gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzillatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

@basa.durango



DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdian asteazkenetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauean ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea

Eskualdeko lau ordezkari ardi moztaille txapelketan

Abadiñoko probalekua Euskal Herriko eta nazioarteko ardi moztailleen topaleku bihurtuko da zapatuan. Euskal Herriko eta nazioarteko 80 moztaille arituko dira lehian. Euskal Herri osotik ekarritako 1.000 ardiri moztuko diete ilea

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Zapatu honetakoa mugarri historikoa izango da, Euskal Herriko Ardi Moztailleen Txapelketa egingo delako lehenengoz. Euskal Ardi Moztailleen Elkar-teak, gainera, Nazioarteko Ardi Moztailleen Txapelketa ere antolatu du lehiaketa horren barruan. Guztira, 80 moztaille arituko dira txapelketan; eurretatik 36 Euskal Herrikoak dira eta lau eskualdekoak: Zorion Abendibar eta Aritz Abendibar mallabitarak, eta Julen Izurza eta Joseba Ugalde zornotzarak. Euskal Herriko moztaillez gainera, nazioartekoak ere arituko dira: Kataluniakoak, Eskoziakoak,



Euskal selekzioa kideak prest daude lehiatzeko eta sariak etxeratzeko.

Irlandakoak, Galeskoak, Inglaterra-koak, Espainiakoak, Frantziakoak, Kolonbiakoak, Alemaniakoak, Norvegiakoak eta Uruguaiakoak. 80 moztaille horiek Euskal Herri osotik ekarritako ardiei moztuko diete ilea.

"Ilusio handiagaz eta gogotsu gaude, Euskal Herrian lehenengoz egingo da-eta dimentsio honetako ardi moztailleen txapelketa bat. Mimo handiz prestatu dugu. Egun osoko egitaraua izango da, lagun artean zein familian gozatzekoa. Ederra izango da", azaldu dute antolatzaileek.

Egun osoko egitaraua

Euskal Ardi Moztailleen Elkartea egun osoko egitaraua antolatu du biharko. Goizean, 08:30etik 13:30era, kanporaketak jokatu dituzte. Arratsaldean, 15:00etan hasita, finalerdiak eta finalak jokatu dituzte.

Horrez gainera, egun osoan zehar ardi eta artile produktuen artisau azoka egongo da probalekuaren kanpoko aldean. Eta probalekuaren atzeko aldean, Herbehereetako Veno enpresak *Te Pare Racewell* manga modernoaren erakustaldia egingo du.



Arteiz kaleko eraikina.

Lokal berria herriko denda handitzeko

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udala Arteiz kaleko 8. zenbakian dagoen lokal bat eraberritzen dabil, bertan denda ipintzeko. Udalak jakinarazi duenez, egungo dendaren tamaina 29 m²-koa da, eta berriak 70 m² izango ditu. Mallabiko Udalak esan du zerbitzua erosoagoa eta irisgarriagoa izango dela herritarrentzat.

Pintxo dastatzea, Urdiñaken 50. urteurrena ospatzeko

Urdiñak txoko gastronomikoak 50. urteurrena ospatuko du zapatuan. Elkartearen ospakizunerako, pintxo dastatzea egingo dute. ANBOTO Urdiñak txokoko hiru bazkidegaz izan da: Rafa Iraetaz, Aitziber Iturriagaz eta Teo Arteagaz



Rafa Iraeta, Aitziber Iturriaga eta Teo Arteaga.

Maialen Zuazubiskar ZALDIBAR

Orain 50 urte, Zaldibarko herrian elkarte bat sortu behar zutela otu zitzaion bertako lagun kua-drilla bati. 50 urte geroago, Urdiñak txoko gastronomikoaren urteurrena ospatzen dabilta. "1975ean hasi zen dena egosten. Zortzi-hamar lagun batu ginen neure baserrian, Katikengan. Soziedade bat sortu behar genuela okurritu zitzaigun, eta Urdiñak 1976an zabaldu genuen ofizialki", esan du Teo Arteaga sortzaileetarikoa batek.

Hasieran, Urdiñak mikologi elkarte modura eratu zuten. "Saso hartan elkarte zirenak oso perretxiko zaleak ziren. Horren adibide da gaur egun soziedadeak duen itxura ere", esan du Aitziber Iturriaga bazkideak. "Perretxiko erakusketak antolatzen genituen, eta, horrez gainera, jaietan ere herrira zabaltzen genuen elkarte, bertan kontzertuak antolatuta", gaineratu du Artegak.

Hasierako urte haietan, elkar-terko bazkideak gizonezkoak izan zitezkeen bakarrik. Baina txoko gastronomikoa garai berrietara egokitu da, modu naturalean. "Bazkide baten emaztea alargun

geratu zen, eta horixe izan zen lehenengo pausoa emakume bat bazkide egiteko. Iraultza handi bat izan zen eta bertako bazkideak oso aurrerakoiak izan ziren", aitortu du Iturriagak. Gaur egun 30 bazkide daude Urdiñak txokoa, eta hasierako urteetan ez bezala, bazkide taldea gizon eta emakumez osatuta dago.

Soziedadez soziedade ekimena

Txoko gastronomikoko kideak pozik eta gogotsu daude Urdiñaken 50. urteurrena ospatzeko, zaldibartarrekin zelebratzeko. Hastapenetara bueltatu eta txokoa herriari zabalduko diote, beste behin ere. Hori horrela, zapatu honetarako, irailak 27, pintxo dastatzea antolatu dute, *Soziedadez soziedade Urdiñakek 50 urte* lelopean. 11:30ean emango diote hasiera egunari, udaletxe aurrean. Handik Goierriara joango dira. "Herriko bost elkarteetako lagunok dastatzea antolatu dugu, eta amaiera Urdiñaken emango diogu", gaineratu du Rafa Iraetak. Pintxo dastatzean parte hartzeko, ezinbestekoa da aurretik txartelak hartzea.

"Bezeroak behar duen horretara egokitzen naiz"

JAVIER MATAS JAVIER KONPONKETAK
Zaharberritzeak, moldaketak ala konponketa txikiak izan, Javier Matasek eguneroko egoerak eta beharrianak konpontzeko lantxoak egiten ditu Durangalde osoan

Ekaitz Herrera DURANGO
Erreparatu honako egoera hauei: pertsiana ez atzera ez aurrera geratu zaizu eta ez dakizu nori deitu libratu dezan; sabaitik eskegitako lanpara aldatu gura duzu baina ez dakizu nondik hasi. Nork aldatu ate bateko heldulekua? Nork margotu logela, nork zaharberritu egongelako armairua? Eta arropa eskegitzeko soka zelan aldatu? Eta logelaren bat husteko laguntza beharko banu? Eta zulatzeako makina hartzera ausartzen ez banaiz?
Halako edo antzerako egoerak bizitzen badituzu zure egunerokotasunean, lasai. Bat: egoera arruntak dira. Eta bi: egoera arrunt horiek guztiak konpontzeko zerbitzu egoki-egokia daukagu: Javier Konponketak. Javier Matas durangarrak etxeko egunerokotasuneko arazo txiki guztiak konpontzeko zerbitzua eskaintzen du eskualde osoan. Nahikoa da beragaz hartu-emanetan ipini eta bakoitzak behar



Javier Matas.

duena kontatzea. "Orain dela egun gutxi etxe bat margotu dut, eta berniza eman diet altzari batzuei. Ispiluak ipini ditut hainbat etxetan, altzariak muntatu, eta baita biltegi bat hustu ere. Zeregin guztietarako behar-gina naiz, bezeroak behar duen horretara egokitzen naiz", dio

Javier Matasek. Gaineratu duenez, "herritar asko nora jo jakin barik egoten da etxean konponketaren bat edo lantxoren bat egin beharra egokitzen zaienean". "Nik egoera horiei konponbidea emateko lan egiten dut, hain zuzen ere", esan du. Behar den moduan eta irribarre bategaz.



ASKOTARIKO ZERBITZUAK:

- ALTZARIEN ZAHARBERRITZEA
- PERTSIANAK LIBRATZEA
- GORTINAK IPINTZEA
- BALKOI BARANDAK LIXATZEA
- ETXEAK MARGOTZEA
- BERNIZA EMATEA
- HORMA HONDATUAK KONPONTZEA
- ATEETAKO HELDULEKUAK ALDATZEA
- ISPILUAK ESKEGITZEA
- LANPARAK ALDATZEA
- ALTZARIAK MUNTATZEA
- ETXEAK HUSTEA
- PINTURA-KOARDROAK ESKEGITZEA
- ETXEKO LURRA KONPONTZEA
- ARGITERIA LANAK
- HORMA-PAPERA JARTZEA
- ELEKTRIZITATE ERREGELETAK IPINTZEA

DURANGO
622 31 45 67
reparaciones.javier

LEHEN ETA ORAIN HAINBAT ADIBIDE



Horman zuloa egin eta lanpara bat ipintzea eskatu dio bezero batek.



Egongela bat, margotu eta papera ipini eta gero.

Baranda bat, lixatu eta margotu ondoren.

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOKKETAK

*Zozketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Aukan izozkiak.
6 izozki edo etxera
eramateko 1/2
litroko 2 tarrina.
Durango.



BASA take away
jaketxeko bi gazta
tarta razio. Zaporeak
aukeran: gazta tarta
labean, pistatxo, kitkat,
mango, oreo, lotus
edo pantera rosa.

IRAILEKO IRABAZLEAK

Xiberu:
Itzler Arana Goikoetxea eta
Miren Iturriagaetxebarria Etxabe.
Basa:
Maider Nuñez Jauregi
Aukan:
Olatz Arteaga Zugazaga

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Bingo umoretsua Apatan Nagusien Eguna ospatzeko

Gaur arratsaldean Nagusien Eguna denek elkarregaz ospatzeko, Atxondo Kultura Mahaiak bingo berezi bat antolatu du. Belaunaldien arteko ospakizun bat izatea da helburua, eta gazte, heldu zein nagusiak parte hartzera deitu dituzte

Joseba Derteano ATXONDO

Urriaren 1a Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna da, eta egun horren harira, gaur, irailak 26, umorez beteriko bingoa egingo dute Atxondon. Ekimena 18:30ean hasiko da, Apatako frontoian. Hainbat belaunaldiaren arteko topaketa izatea gura dute Atxondoko Kultura Mahaiak eta Anbotoko Dama Nagusien Elkarteko antolatzaileek. Horrela, gazte, heldu zein nagusiak ekimenean parte hartzera gonbidatu dituzte antolatzaileek.

Virginia Imaz pailazo profesionalaren umoreak gidatuko du bingoa. Imazek 40 urte baino gehiagoko ibilbidea du an-



Iazko bingo irudi bat Apatako pilotalekuan.

tzerkigintzan eta clown munduan. Amaitzeko, txokolate beroa egongo da bertaratzen direnentzat.

Iazko bingoa arrakastatsua izan zen eta belaunaldi askotako jendea batu zen pilotalekuan ekimenagaz goatzera.



Karrikako kideak, Arrazolan. KARRIKA

Karrikaren 'Hurrengo geltokia' antzezlanak ikusgai Arrazolan

J.D. ATXONDO

Arrazolan San Migel bezpera ospatuko dute domeka honetan. Ospakizunen barruan, Durangoko Karrika Antzerki Taldeak *Hurrengo geltokia* antzezlanak plazaratuko du, 19:30ean, Arrazolako frontoian. Eurria egiten badu, ekimena Axpeko frontoira tokialdatuko dutela iragarri dute antolatzaileek.

Antzezlanaren ondoren, arrazolarrek afaria egingo dute Erlaunpe soziedadean. Udalak ardoa ipiniko du.

Udalak kirol ikastaroak antolatu ditu Izurtzan

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat kirol ikastaro antolatu du interesa dutenentzat. Hiru ikastaro daude aukeran: gimnasia, luzaketak eta yoga. Klaseak urriaren 1etik aurrera hasiko dira.

Gimnasia astean egun bitan emango dute: astelehenetan 19:00etatik 20:00etara, eta eguaztenetan 17:00etatik 18:00etara. Beste ikastaro biek astean saio bana izango dute. Luzaketena eguaztenetan izango da, 18:00etatik 18:30era; eta yoga ikastaroa eguenetan, 18:00etan.



Udalak antolatzen ditu ikastaroak.



Angurreta arte espazioa.

Mudoh musikariak kontzertua emango du Angurretan

J.D. MAÑARIA

Aitor Monje berriztarrak *Elektrizitateak* disko berria aurkeztuko du bariku honetan, 19:00etan. Mañariko Angurreta harrobia arte espazioan. Monjek 30 urteko ibilbidea du musikagintzan; bere bakarkako proiektuetan ezagunagoa da Mudoh legez. Musika instrumentala da berea, letrarik bakoa. Soinu industrialak nagusitzen dira, ohiko melodietatik urrunduta. Kontzerturako sarre-
ra doakoa da eta ez dago tokirik erreserbatu beharrik.

EH Bildu: "Norabide sozialik bako HAPOa landu da lurretan"

Plan orokor berrian aurreikusitako 510 etxebizitzetatik 240 babes ofizialekoak izan beharko liratekeela diote

Aitziber Basauri IURRETA

Iurretako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berriak aurreikusitako 510 etxebizitzetatik 240 babes ofizialekoak izan beharko liratekeela jakinarazi du EH Bilduk, "EAJk 21 bakarrik aurreikusi dituen arren". Salatu du "norabide sozialik bako" plana dela, eta jeltzaleek egindako gestio "larria" kritikatu du. Herrian babeseko etxebizitza bakar bat ere ez dagola nabarmendu du.

Babeseko etxeen falta 2006an Jaurilaritzak onartutako Lurzo-

ruari eta Hirigintzari buruzko legearen aurretik "diseinatutako" estrategia baten ondorio dela dio EH Bilduk. Legeak babeseko etxeen gutxienekoak ezarri zituen, baina salbuespen bat jaso zuen: urte biko epean onartutako plan partzialek—hau da, 2008a baino lehenago— 1994ko legearen arauak jarraitu ahalko lituzkete, babes ofizialentzako gutxienekoak ipini barik, argitu dutenez. "Orduko gobernu talde jeltzaleak sasoi hartan garatu zituen HAPO berrian sartu dituzten etxebizitza planak, eta horrek herriaren



Udane Zugaza-Artaza eta Maier Alberdi prentsaurrekoa eman ondoren.

etorkizuna baldintzatu du", gaineratu du. EH Bilduk esan du EAJk "derrigorrez" sartu dituela babesekoak HAPOan: "ZAGA fabrika zegoen orubeko etxebizitza plana eten eta gero, udalak egungo irizpideetara egokitu behar

izan zuen berriro martxan ipintzeko". Babeseko etxeak eraikitzea aldarrikatu dute. Horretarako, Bideondoko udalaren jabegoko lurzatiaren salmenta prozesua gelditzea eskatu du (12 etxe tasa-tu eta 33 libre).

Antonbentako zubian pasarela berria ipiniko dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak oinezkoentzako pasarela berria ipiniko du Antonbentako zubian. Mainondoko kirolgunea eta herri-gunea segurtasunez lotzea dute helburu, udal ordezkariak azaldu dutenez. Pasarela berria bateragarria izango da gaur egungo trafiko zirkulazioagaz, "oinetza koentzat espazio propio bat eskainita", argitu dutenez.

Udalak herritarren segurtasuna hobetzeko eta oinezkoen mugikortasuna errazteko duen konpromisoaren barruan hasiko dituzte lanak. Udalak 48.550 euro erabiliko ditu beharra arrera eramateko, Egoitz Garmendia alkateak azaldu duenez.

Jai giroaz gozatzeko egunak dituzte aurretik lurretan

Montoitik jaurtitako txapliguekin hasiko dituzte jaiak, domekan. Arratsaldean, Doniel Atxa jasoko dute plazan

Aitziber Basauri IURRETA

Ohiturari eutsita, Montoitik jaurtitako txapliguekin emango diete ondoetorria iurretarren sanmigelei. Domekan dute hitzordua horretarako, 12:00etan. Arratsaldean, plaza lepo betekoa da ohiturazko Doniel Atxa jasotzeko. Lanak amaituta, Iurretako dantzariak azken entsegua egingo dute.

Gaur hasi eta urriaren 5era arte, jai giroaz gozatzeko egunak dituzte aurretik Iurretan. Tradizio handiko ekitaldiek aurten ere ez dute hutsik egingo. Har-



Doniel Atxa jasotzen. LUCIA MERUELO

tara, Porrotx eta Marimotots pailazoez bete egingo dute plaza gaur. Eta zapatuan XIV. Mendi Martxa eta Ahari Iurreta bizikleta martxak egingo dituzte. Iurretako dantzarien erakustaldia ikusteko aukera ere egongo da asteburuan. Umeentzako bizikleta ginkanak, Olaburu eskolako partiduek eta Indarparken X. urteurreneko ekitaldiek osatuko dute eskaintza.

Kontzertuak

Gaur Rewinders taldeak joko du, Askondon. Zapatuan, bestalde, Juego de Damas Band, Against You, Ganibet eta Tatxers igoko dira plazako oholtzara. Durangoko Orfeoiaeren kontzertuak eta Zutik plaza taldeak borobilduko dute lehenengo asteburuko musika eskaintza (egitaraua 18. orrian).

Karta jokoak eta bazkaria Garaiko nagusien aste kulturalan

Nagusien bazkaria San Migel egunaren bezperan egingo dute, domekan, Otea Loran elkarte

E.H. GARAI

Garaiko Otea Loran elkarte herriko nagusien topaleku izaten ari da aste honetan zehar. Makina bat ekintza aurreikusi dute egunotarako. Urtero legez, herriko nagusien elkarteak aste kultural oparoa antolatu du, hamazazpigarrena aurten. Irailaren 24an hasi zuten egitaraua, mus txapelketagaz, eta karta jokoagaz jarraitu dute astean zehar: tute txapelketa egin zuten atzo, eta briska txapelketa egingo dute gaur, 17:00etan. Iragarri dutenez,

mokadutxo bategaz borobilduko dute arratsaldea.

Aste kulturalako ekintzarik azpimarragarrienetakoa nagusien bazkaria izango da. San Migel egunaren bezperan egingo dute, domekan, Otea Loran elkarte bertan. Urteroko ohiturari eutsita, mahaiaren bueltan bilduko dira, 14:00etan.

Bazkalostean, karta txapelketetako sariak banatzeaz gainera, omenaldia egingo diete nagusien elkarteko bazkiderik adinekoenei. Hala emango diote amaiera egitarauari.

PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

Lopezen eta Uriaren argazkiek irabazi dute ANBOTOren lehiaketa

Beste urte batez, ANBOTOk Udako Argazki Lehiaketa antolatu du eta hainbat izan dira bertan parte hartu duten herri-tarrak. Aurtengoa amaitu da eta dagoeneko baditugu irabaz-leak. Durangaldeko kategorian, epaimahaiaren saria Paul Uriaren *Hankak igo* argazkiak irabazi du. Botorik gehien batu

duen argazkia Iñaki Izagirreraren *Eguzkiaren alabie* da; 137 boto lortu ditu. Durangaldetik kanpoko kategorian, epaimahaiaren saria Asier Lopezen *Ur-Izar* argazkiak irabazi du. Eta botorik gehien Odei Vazquezen *Hondartzaren bakardadea kulunkatzen* argazkiak jaso du, 96 boto.



ASIER LÓPEZ, 'UR-IZAR'

DURANGALDEA ASTEON

Lorezaintza lanak Zubitegi Kirol Parkean

MALLABIA Mallabiko Udalak lorezaintza lanak egingo ditu Zubitegi Kirol Parkean. Udalak jakinarazi duenez, bertan esku-hartzeak egitea beharrezkoa izango da kirol parkearen ingurumen-testu-ingurua egokitzeko. "Espazio publikoa mantentzeko eta hobetzeko dugun konpromisoa berretsí gura dugu", azaldu dute. 7.240 euro erabiliko dituzte lanak egiteko.



TRUMOITTE

Trumoitte gatz haranera egindako bisita

GARAI Joan zen zapatuan, Trumoitte elkarteko kideek Gesaltza Añanako gatz haranera egin zuten txangoa. Autobus bete herritar joan zen. Antolatzaileek azaldu dutenez, eguraldia lagun, ederto pasatu zuten eguna. Bisita gidatua eta tailerra egin zituzten goizean, eta arratsaldean Espejoko igerileku naturaletara joan ziren.



EAJ DURANGO

Batzokiaren 120. urteurrena ospatu dute

DURANGO EAJren Durangoko Uri Erakundeak Durangoko batzokiaren 120. urteurrena ospatu zuen joan zen asteburuan. Herriko eta eskualdeko ehun lagunetik gora batu ziren ekitaldian. Iñigo Ansola Bizkai Buru Batzarreko presidentea izan zuten buru ekitaldian. EAJk herrian izan duen ibilbide historikoa gogorarazi zuen Ansolak, eta, azpimarratu zuenez, "Durangoko batzokia izan da eta izango da Euskadiren bidea argitzen duen itsasargia".

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



BATU BIKOTEKA



LERROEI JARRAITU

Lerroaren gainetik marraztu.



MARGOTU

Margotu gurago dozun moduan.





Eneritz Garcia eta Unai Eleizalde.

"Umeentzako ikuskizunekiko aurreiritzia gutxitzen dabil"

ANDER GARAIZABAL LOGELA MULTIMEDIA

ANTZERKIA Logelak 'Semaforoa' estreinatuko du domekan, 17:00etan, Arriolan; urtea amaitu aurretik, 22 emanaldi dituzte; tartean, urriaren 17an, Berrizko Kultur Etxean

Aritz Maldonado ELORRIO

Logela Multimedia Arriolan aurkeztuko du *Semaforoa*, etxean. Gaur egun bizitzeko ditugun erritmo eta ohiturei buruzko hausnarketa eragingo du lanak. Orain ere, Ander Garaizabal arduratu da musikaz eta ekoizpenaz, Imanol Garaizabalek zuzendu du lana, Edorta Barruetabeñak egin du gidoia, Sonia Villamorrek zuzendu du dramaturgia. Eneritz Garcia eta Unai Eleizalde dira Amets eta Eneko protagonistak. "Lehenengoa da, herrian gainera; beraz,

erronka bikoitza izango da eta badu bere presio puntu hori, baina estreinaldian jendea entzutea ere aukera ona da", esan du Ander Garaizabalek ANBOTOK egindako elkarrizketan.

"LENGOAIA BERRI BAT SORTZEN DUGU DIZIPLINAK ELKARREGAZ NAHASTEAN"

Zein ideia dago 'Semaforoa' lanaren atzean?

Hainbat diziiplina batzen duen ikuskizuna da. Antzerkia da, batez ere, mapping teknikagaz uztartua: musika, bideoak eta argiak. Zelanbait, publiko guztiei zuzenduriko ikuskizuna da, baina lau urtetik gorakoek ere ulertzeko moduan idatzita dago. Bestalde, istorio bat kontatzen da. Protagonistetariko bat Eneko da. Enekok gauza materialak behar ditu entretenitzeko, berandu ailegatzeko eta gaizkak

atoan egin behar izaten ditu. Enekok merkealdira joan gura du. Beste aldean, Amets izeneko pertsonaia dago. Amets irudimenagaz luze jolastu daiteke. Funtsen, kontrajarriak diren pertsonaia bi horien arteko interakzioan datza istorioa. Erdigunean semaforo bat dago, eta bertako izakitxoek bizia hartzen dute Eneko susto baten ondorioz mundu ameslari batean sartzen denean. Istorioa hiri batean kokatzen da baina beste mundu batean ere bai, eta mota askotako mezuak zabaldu daitezke horrela.

Gertuko gai bat da.

Gertuko gai bat da, bai, eta, zelanbait, heldu beharrekoa ere bai. Antzezlanak ez du asmorik moralkeria modu bat izateko, baina gure alearen ekarpena egin gura diogu bizi dugun garai honetan. Batez ere, ondo pasatzeko ikuskizuna da *Semaforoa*, euskaraz sorturikoa; beti ere, atzean mezutxo batzuk dituen.

Familia osoarentzako ikuskizunak direnean, belaunaldi desberdinetako ikusleentzat geruza desberdinak sortzen dira.

Bai. Batez ere, txikienean ere ulertzeko moduko istorio bat da, eta hor bidelagun izan dugu Edorta Barruetabeña gidoilari durangarra, horretan aditua dena. Berak idatzi du testua, eta, batez ere, mundu hori ulergarri egiten lagundu du. Horixe da erronka, geruza desberdinak izatea, baina batez ere txikienean ulertzeko zeozer egitea.

Orain ere hainbat diziiplina uztartu duzue.

Gure lanean bereizgarri bat dela esango nuke. Aktoreen lanagaz, musikagaz, argiagaz eta bideoagaz, elkarren arteko lengoaia bat sortzen da interakzio horretatik. Horixe da berezitasunetarikoa bat obra honetan, eta hori dena oso ondo integratuta dagoela iruditzen zaigu. Orekatuta dago, dena ondo fusionatuta, obraren mesedetan. Horixe da guk bilatzen duguna diziiplina horiek lantzerakoan.

Urteotako lanagaz lengoaia propio bat eraiki duzue.

Bai, diziiplina horiek batzeko modu propioa dugula esango

nuke, eta hortik tiraka gehiago kontrolatzen dugu. Teknika horiek geroago eta gehiago lantzen ditugu, geroago eta gehiago menderatzen ditugu, eta, beraz, badakigu kontatu gura dugunaren zerbitzura horiek ipintzen. Ahalegina egiten dugu artifizioa ez erabiltzen erabiltzearen. Kontatu gura diogunari ekarpena egiteko tresna da.

Zein da erronka handiagoa, alde teknikoa ala istorioa kontatzeko modua?

Biak, eta ikuskizun bideragarriak izan behar direla ere bai. Jakin egin behar da non, zertarako eta norentzat egin. Horixe da garrantzitsuena. Oso ondo neurtu behar ditugu gauzak aterabidea izan dezaten, eta eszenatokian ere gure ekarpena egiteko. Ikuskizun bat sortzerako orduan, jakin egin behar dugu zer den, zertarako den eta nori zuzenduta dagoen. Ideiak sortu daitezke eduki aldetik. Eta teknika baten inguruan sakonduta, aukera asko egon daiteke, baina zertarako den begiratu behar da.

Familia osoarentzako istorioak idazten dituzue. Geroago eta konpainia gehiagok egiten dituzte horrelako lanak. Sasoi ona da familia osoarentzako ikuskizunak egiteko?

Logela Multimedia alde bi ditu: publiko familiarrari zuzenduriko ikuskizunak eta heldu eta gazteei zuzendurikoak. Bigarrenaren kasuan, gehiago erabili izan ditugu dantza eta multimedia alorra, eta familiarentzat diren kasuan antzerki multimedia. Ikusi dugunez, publiko gehiago doa familiari zuzenduriko ikuskizunetara. Publiko gehiago dago, egingarriagoa iruditzen zaigu eta bere fruituak ematen ditu. Badago aurreiritzi bat "umeei zuzenduriko" ikuskizunen gainean, baina hori ez da gure kontua. Euskal Herriko hainbat konpainiak ere egiten dituzte familia osoarentzako obra oso interesgarriak, nagusiek ere gozatzeko moduko ikuskizunak. Urteekin txikitzen joan den aurreiritzi bat da, oso gauza interesgarriak egiten direlako. Gainera, oso publiko interesgarria da, umeez gainera gurasoak ere badaudelako, eta, beste alde batetik, arte eszenikoetarako interes berezi bat duen jende bat ere batzen duelako. Hori ere bada gure publikoa.

"GARRANTZITSUA DA JAKITEA NON, ZERTARAKO ETA NORENTZAT EGIN ZURE OBRA"

Urriaren 9ra arte egongo da ikusgai 'Ia zu zinen'

ERAKUSKETA 'Ia zu zinen' erakusketa ibiltaria Zornotzako Zelaieta Zentroan dago. Bosteko arte garaikide erakusketaren aurtengo ediziorako prestatu dute 'Ia zu zinen'; Paula Fuentes da 28. edizioa antolatzeaz arduratu den komisarioa

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Bosteko arte garaikide erakusketa ibiltariak 28. edizioa du aurtengoa. Aurten, *Ia zu zinen* erakusketa izango du ardatz. Erakusketak Sofia Mendiando, Hodei Herreros eta Argiñe Ceballos artisten lanak batzen ditu. Paula Fuentes da erakusketaren komisarioa, eta urriaren 9ra arte egongo da ikusgai Zelaieta Zentroan. Bostekoren moduko ekimenek herrietan eta bertako kultur sarean egiten duten ekarpena nabarmendu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak: "Zornotzarrek gure lurraldeko artista garaikideen talentuaz gozatzeko aukera dute Bostekogaz. Udalean, denon eskura dagoen kultura bategaz konprometituta gaude eta Bosteko horren adibide da". Bestalde, Paula Fuentes komisarioak obren kalitatea azpimarratu du: "Erakusketak ikuspegi introspektibo bat eskaintzen du eta ikuslea izatearen eta ez iza-



Ordezkarri politikoko eta erakusketako parte hartzaileak.

tearen kontzeptuaren inguruan hausnartzera gonbidatzen du. Artisten lanek nortasuna ikuspegi plural eta eraldatzaile batetik lantzen dute, eskultura, testu, argazki eta ikus-entzunezko piezak erabilita".

Bosteko arte garaikidea Bizkai osora zabaltzeko asmoagaz jaio zen orain hiru hamarkada. Horrela, Zornotzan ikusgai egon eta gero, Bizkaiko beste hiru herri bisitatuko ditu datozen asteetan: Leioa, Getxo eta Basauri.



Grabazio bateko irudi bat.

'Mintzo zen' film laburrerako figurante bila dabilta Elorrión

ZINEA Urriaren 4an hasiko dituzte grabazioak, Aldatsekuan; 65 bat urteko herritarrak behar dituzte

A. M. ELORRIO

Aitor eta Izaro Arrutik, *Mintzo zen* film laburraren egileek, filmerako grabazio lanak urriaren 4an hasiko dituztela iragarri dute. Aldatsekua jubilatuen etxean egingo dituzte grabazio horiek, eta figuranteak behar dituztela zabaldu du Elorrioko Udalak; hain zuzen ere, 65 urtetik gorako herritarrak behar dituzte grabaziorako. Interesa dutenek whatsapp bat bidali dezakete 689 793 804 telefono zenbakira, eta han euren izen-abizenak eta disponibiltatea idatzi.

Egileen berbetan, *Mintzo zen* ikus-entzunezko lanak "euskaldunen frustrazioak azaleratuko ditu", eta *Xorieri mintzo zen* abestiko protagonisten erretratu garaikidea ere izango da. "Bakarriketa dispositibo gisa erabili nahi dugu zera ikusarazteko, euskaldunoi hitz egiteko eskubidea ukatzen digutenean gudan zer pentsamendu eta sentimendu sortzen diren", zehaztu dute. Proiektua Udalbiltzak antolatu eta Elorrioko Udalak sostengatzen duen *Geurretik sortuak* kultur bekari eskerrak garatuko dute.



GAI LIBREAN

IGOR GALARZA INTXAUSTI KAZETARIA

Zer da egia?

Ingurukoek 'Urbizulover' bat naizela esaten didate: "Gorka Urbizuk puzkerra botako balu ere, puzker hori mirestuko zenuke", esan izan dit ustez laguna den batek. Ps, zer jakingo du berak bada, beti baitabil reggaetotikmakarreora, makarreotikreggaetoiara, tartean dagoen musika guztia gorrotaturik. Zer zilegitasun eman dakioke halako gustuak dituen bati?

Tira, harira: azken egunotan berriz ere Urbizuren musika entzuten da irratieta, Merina Grisekoekin elkarlanean, eta orain dela 22 urte inguru zioen esaldi antzeko bat, baina guztiz desberdina. 2003an zera zioen: "*Mundua obretan dago, baina guk ez dugu ezer apurtu...*". 2025a heldu zen, eta orain zera dio: "*Mundua obretan dago ta guk apurtu dugu...*". Eta 2025eko Igor zalantza eta autoindefinizio batean lez geratu zen. Apurtu dugu ala ez dugu apurtu? Noski, Urbizuk dioena ez da joango balizko etorkizuneko Euskal Errepublikaren konstituzioan idatzita, baina galdera orokor batera

eramaten naute halako kontraste eta kontraesanek: guk pentsatzen duguna gara ala guri pentsarazten digutena?

Noraezera eta nire baitan korapilatzer a naramaten galderak ditut barruan bueltaka, galderak lokarriak bailiran elkarren artean katramilatzen joango balira lez. Azken hilabeteen, Bilbon Vueltan jazotakoaren harira, geroago eta hedabide gehiago dira Palestinaren

"NORAEZERA ETA NIRE BAITAN KORAPILATZERA NARAMATEN GALDERAK DITUT BARRUAN BUELTAKA"

gaia atera dutenak. Geroago eta ahots gehiago (are, geroago eta estatu gehiago) dira genozidioaren aurka oldartu direnak. Baina gizartearen eskuma aldeak mespretxuz begiratzen dio ezker aldeari, "bah, komunista hauek mundua apurtu gura dute, besterik ez!" diote. Eta sentsazioa dut berdin gertatzen dela (kasu askoz gutxiagotan, noski) eskuineko jendeak egia bat ateratzen badio ezkerreko aldeari: "Bah, faxista horiek ez dira konturatzen gezur batean bizi direla".

Eta egia da, zintzoki uste dut eskuineko jendeak ez duela errealitatearen ikuspegi objektibo batetik hitz egiten momentu bakar batean ere. Baina batak besteari mintzen diguten egiak entzutea saihesten dugu. Hara, Gorka Urbizuk dio kanta berrian: Egia Donostiako auzo bat da. Okerrena da galdera eta hausnarketa horiek ez ditugula beste inon planteatzen, jai edo alkohol giroan ez bada; sanmigeletan Estrella batzuk edaten, adibidez. Hor ere, kontraesanak.

IRAILAK 26

17:30 Porrotx eta Marimotots *Ostirala iritsi da* ikuskizuna plazan. (Euria eginez gero, Maiztegiko frontoian).

21:00 *Rewinders* Askondon.

IRAILAK 27

8:30 Iurretako XIV. Mendi Martxa plazatik.

8:15 Ahari lurreta bizikleta martxa Askondotik.

12:30 Pintxo txapelketa dantzari plazan, Aburrecalles txarangak alaituta.

14:00 Jubilatuen bazkaria Askondon.

Jarraian, Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria.

16:30 Umeentzako bizikleta ginkana plazan.

18:30 Olaburu eskolako partiduak Kepa Arroitauregi frontoian.

Ondoren, emakumezkoen gomazko paleta partidua eta Bizkaiko nagusien lehen mailako txapelketako partidua.

20:00 Durangoko orfeoia- ren kontzertua elizan.

22:00 Kontzertua Askondon: Juego de Damas Band.

22:30 Kontzertuak plazan: *Against You*, *Ganibet* eta *Tatxers*.

Ondoren DJ Guate-K.

IRAILAK 28

7:00 Dultzaineroak plazatik.

9:30/11:30 Indarpaken

IURRETAKO JAIAK 2025



LUCIA MERUELO

Iurreta Dantzarien azken entsegua
Ohiturazko Doniel Atxa jasoko dute domekan Iurretan. Lanak amaitutakoan herriko dantzari-ek azken entsegua egingo dute. *Plazan, 18:30ean*

X. urteurrena: ume eta gazteentzako ekintzak plazan.

Eguerdian bazkaria Askondon. Tiketak salgai.

11:45-12:00 Palestinaren aldeko elkarretaratzea Montoian.

12:00 Jaien hasiera Montoitik.

Ondoren kalejira dultzaineroek alaituta.

14:30 Gazte bazkaria plazan.

18:30 Ohiturazko Doniel Atxa.

Jarraian Iurretako dantzarien azken entsegua.

22:30 Zutik erromeria plazan.

IRAILAK 29

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

12:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren Igel txapelketa plazan.

18:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren, kantu ta dantza
Mirari Azkune eta Gorka Valdesegaz.

URRIAK 1

19:00 Bakarriketa saioa plazan:
Asier Galarza, Esti Curiel eta Manex Astigarraga.

URRIAK 2

18:00 Bingotonbola intergenerazionala eta txokolatada Askondon.

URRIAK 3

17:00 - 19:00 Ume jolasak eta Maiztegiko ikasleen dantza erakustaldia plazan.

19:30 *El Reciclador* dantzari plazan.

Iiuntzean Tortilla txapelketa kaskoan.

20:30 Tortillen aurkezpena.

21:00 Kontzertua Askondon: Alarma Morea.

22:30 Bertso saioa:
Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga. Gai Jartzailea: Ainhoa Urien. Kepa Arroitauregi frontoian.

23:59 Oilar Baltzak erromeria plazan.

Ondoren
Malakias MX3 eta DJ Rekal.

URRIAK 4

MOZORRO EGUNA: ZIRKUA

12:30 Poteoa.

14:30 Marmitako txapelketa Askondon.

Ondoren, herri bazkaria.

16:30 Kuadrilla ikuskizuna Askondon.

18:00 Sakatu elektrotxaranga.

21:00-22:00 Luhartz erromeria plazan.

22:45 Luhartz erromeria.

Ondoren,
MJ Totozer.

URRIAK 5

11:00-14:00 XXV. Nekazaritza eta Artisautza Azoka Olaburun.

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara.

12:30 Iurretako dantzariak.

Ondoren, Harrijasotzaile gazteen erakustaldia:
Izadi Agirre, Aritz Abendibar, Izei Abendibar eta Unai Burgaña.

18:00 Dantza ikuskizuna. Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua: Lurra Dantza Taldea (Urretxu).

Ondoren, jaietako errifen zozketa.

20:00 Herri afaria plazan.

20:30 Erromeria Lorratz taldeagaz.

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuta.



XXVI. EUSKAL ELIKADURA
ETA ARTISAUTZA AZOKA

URRIAK 5

11:00-14:00 Olaburu kalea IURRETA

TXAHALA BURDUNTZI ERARA
ARTISAUTZA
UMEENTZAKO TAILERRAK



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 26

ABADIÑO Erakusketa
'Naturari so. Una mirada a la naturaleza' Durangaldeko Artisten Elkarteko talde erakusketa.
Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra bitartean.

DURANGO Erakusketa
Rai Bikandiren lanak.
Ezkurdi aretoan, irailaren 28ra arte.

DURANGO Erakusketa
'Lauaxeta. Ametsen egilea'.
Arte eta Historia Museoa, irailaren 28ra bitartean.

DURANGO Erakusketa
'Goren Sakona' (Ros Boisier).
Arte eta Historia museoa, azaroaren 16ra bitartean.

DURANGO Desfilea
Durango Fashion Gaua.
Andra Mariko elizpean, 20:30ean.

MALLABIA Bertso afaria
Bertso afaria Iban Urdangarin eta Iker Zubeldiagaz, trikitilari eta panderojoleek girotuta. Lekua erreserbatu behar da (696 058 967).
Herriko Tabernan, 21:00etan.

MAÑARIA Kontzertua
'Elektrizitateak' (Aitor Monje 'Mudoh') diskoaren aurkezpena.
Angurretan, 19:00etan.

ZORNOTZA Erakusketa
'Ia zu zinen' (Sofia Mendiondo, Hodei Herreros eta Argiñe Ceballos).
Zelaieta zentroan, urriaren 9ra arte.

ZORNOTZA Sanmigelak
Gaztedi Barria txaranga, 20:00etan. Patata Tortilla txapelketa, 20:30ean. Mus txapelketa, 20:30ean. Mariachiak (Francisco Balbuena, Pancho), 22:00etan. Ondoren, DJ EduGarMar Music.
Dudea auzoan.

ZAPATUA 27

ABADIÑO Txapelketa
Euskal Herriko eta Nazioarteko Ardi Moztaileren Txapelketa.
Probalekuan, 08:30etik 20:00etara.

ATXONDO Bisita gidatua
'Anbotopeko herria'. Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak antolatuta. Izena ematea (94 681 80 66/ gerediaga@gerediaga.eus).
Atxondo, 10:30etik 12:30era.

DURANGO Zirku garaikidea
'Leinu' (Berdinki konpainia).
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

ELORRIO Deialdia
Zumelegi erreka garbitzeko irteera. Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak eta udalak antolatuta.
Plazan, 09:00etan.

ELORRIO Jaiak
Kulotxa Jaialdia.
Artisau Azoka eta umeentzako jolasak eta eskulanak, 11:00etan. Mus txapelketa, 17:00etan (izen ematea: Ortuburun eta Xelain). Txokolatada, 18.00etan.



ARRIOLA ANTZOKIA

ELORRIO Ikuskizuna
Jaime Figueroak bentrilokiaren teknika eguneratu du, oraingo gustu eta sentsibilitatera hurbilduz, zehaztasunari eta maistasunari uko egin barik. Dena umorez ondua.
Irailak 26, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.

Afari kontzertua: Anuk eta Elene, 20:30ean.
Kulotxa auzoan.

IURRETA Kontzertua
Mon (Sabinari gorazarre).
Korta tabernan, 19:30ean.

ZALDIBAR Dastatzea
Pintxo dastatze ibiltaria, Urdiñak txokoaren 50. urteurrena ospatzeko. Udaletxetik Goierriara irteera, 11:30ean. Goierriko elkartean, 12:00etan. Artia elkartean, 12:45ean. Erreka-barrena elkartean, 13:30ean. Okaran-iturri elkartean, 14:00etan. Urdiñak elkartean, 14:30ean. (Txartelak salgai 15 euroan).
Zaldibarren.

ZORNOTZA Sanmigelak
Mozorro Eguna: Musika. Baselizetatik ibilbidea, 10:00etan. Jolasak eta puzgarriak, 12:00etan.

Igel txapelketa, 13:00etan. Trikipoteoa. Sukalki lehiaketa (kazolak aurkeztea, 14:00etan). Briska txapelketa hiruak, 17:00etan. Xaibor, 17:00etan. Hestebeteen altuerako txapelketa, 18:30ean. Ondoren, umeen mozorrorik onenari saria. Altxa porru taldea, 20:00etan. Lekittoko Deabruak, 23:00etan. Ondoren, DJ Pary&Tiza. Nagusien mozorrorik onena, gauerdian.
Dudea auzoan.

DOMEKA 28

ABADIÑO Erakusketa
XXXII. Perretxiko Erakusketa.
Errota kultur etxean, 11:00etan

ELORRIO Antzerkia
'Semaforoa' (Logela Multimedia).
Arriola antzokian, 17:00etan.

GARAI Bisita gidatua
'Durangaldeko balkoia'. Gerediagak eta Urkiola Landa Garapenak antolatuta. Izen ematea (94 681 80 66/ gerediaga@gerediaga.eus).
Garai, 11:00etatik 12:30era.

ZORNOTZA Sanmigelak
Meza, 12:00etan. Ondoren, luntxa trikitilariak girotuta. Udabarri dantza taldea, 13:00etan. Bazkari herrikoia, 14:30ean. Antzerkia, 16:30ean. Gero, bingoa. Zornotzako Musika Banda eta txokolatea, 19:30ean. Errifaren zozketa, 20:30ean.
Dudea auzoan.

ASTELEHENA 29

ZORNOTZA Sanmigelak
Meza, 12:00etan. Jarraian, luntxa trikitilariak girotuta.
Dudea auzoan.

EGUAZTENA 1

ABADIÑO Berbaldia
'Ibaitik itsasora. Palestina askatu!' (Hizlaria: Taher Ali, Ateneo Palestino). Isiotu elkarteak antolatuta.
Gaztañodi txokoan, 19:00etan.

ZINEMA

DURANGO
ZUGAZA ZINEMA
Maspalomas
Barikua 26: 18:00, 20:30. Zapatua 27: 19:00, 21:30. Domeka 28: 19:30. Astelehena 29: 18:00. Martitzena 30: 18:00, 20:15. Eguaztena 1: 20:00.
Una batalla tras otra
Barikua 26: 19:00. Zapatua 27: 17:00, 20:30. Domeka 28: 18:30. Astelehena 29: 18:30. Martitzena 30: 18:30. Eguaztena 1: 19:00.
Ya no quedan junglas
Barikua 26: 18:00, 20:30. Zapatua 27: 17:00, 19:30, 21:30. Domeka 28: 17:00, 19:30. Astelehena 29: 18:00, 20:15. Martitzena 30: 18:00, 20:15. Eguaztena 1: 18:00.
El colegio de los animales mágicos 3
Zapatua 27: 16:30. Domeka 28: 17:00.
Niegalo siempre
Eguaztena 1: 18:00 (doan).

ELORRIO
ARRIOLA ANTZOKIA
Black Dog
Zapatua 27: 20:00. Domeka 28: 20:00. Astelehena 29: 20:00.

ZORNOTZA
ZORNOTZA ARETOA
Expediente Warren
Barikua 26: 20:00. Zapatua 27: 20:00. Domeka 28: 20:00. Astelehena 29: 20:15.
Super Agente HitPig
Zapatua 27: 17:00.

EGUENA 2

DURANGO Erakusketa
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza'. Ondare Jardunaldiak.
Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra bitartean.

BARIKUA 3

DURANGO Erakusketa
Durango Uria XXV. Pintura Lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.
Ezkurdi aretoan, urriaren 13ra arte.

IURRETA Kontzertua
William (Los Brazos).
Korta tabernan, 19:30ean.

J.Derteano ELORRIO

Lasterketa baten antzera, bizitzak ere bere aldatsak eta jaitsierak ditu. Aroa Gorostizak alde biak ezagutzen ditu. 21 urtegar txirrindularitza utzi zuen, elikadura-jokabidearen nahasmendua zuelako. Aurten, 26 urtegar, berriro bueltatu da, eta, besteak, beste, Euskadiko txapelketa irabazi du.

A zer itzulera, Aroa. Itxaroten zenuen hain emaitza onik?

Egia esanda, ez. Nire buruan ez zegoen hau edo bestea lortzea. Berriro korritu gura nuen, eta zer sentazio nuen ikusi. Beste mentalitate bategar bueltatu naiz. Txirrindularitzaz gozatzea dut helburu, hainbesteko presiorik ez duen talde batean. Egia esanda, aurten oso ondo sentitu naiz. Taldeak ez dit inolako presiorik ipini eta uste dut horrek asko lagundu didala emaitzak lortzen. Gustura nago egindako denboraldiagaz.

Ekainean Euskadiko txapeldun geratu zinen Sopelan. Zelan gogoratzten duzu lasterketa?

Orduan taldekide nuen Maite Urteaga zen faborito nagusia. Beretzat lan egitea zen asmoa, baina aurretik istripu bat izan zuen, ez zen oso sasoiko heldu eta bakoitzak bere lasterketa egiteko askatasuna izan genuen. Neure sasoirik onenean nengoen eta aukera aprobetxatu nuen. Helmuga aurreko aldatsa, ez lar luzea, egokia zen nire dohaintarako. Taldetxo bat geratu ginen, eta esprinta nire espezialitatea izan ez arren geratzen zitzaidan dena eman nuen.

2019an ere Euskadiko txapeldun geratu zinen, 23 urtez azpiko mailan, Ugaon, 80 kilometroko ihesaldi baten ondoren.

Oso gomuta polita dut. Hasieran jo nuen erasoa eta Ziortza Isasi nigaz etorri zen, biok elorriarrak. Elkarregaz egin genuen ihesaldi osoa. Ziortza eliteko txapeldun geratu zen, eta ni 23 urtez azpikoan. Euskadiko elastiko biak Elorriora ekarri genituen.

Gutxi falta izan zitzaizun Espainiako Kopako lasterketa irabazteko. Zelan joan zen lasterketa?

Lasterketa arraroa izan zen. Hasieran ez nuen sentazio onik. Bero handia egiten zuen eta horrelakoetan kostatu egiten zait pedal-kolpea aurkitzea. Baina apurka geroago eta hobeto sentitu nintzen. Lezauneko igoeraren ondoren, zortzi ziklista geratu ginen. Gero lauk

"Gozatzea dut helburu; beste mentalitate bategar bueltatu naiz"

AROA GOROSTIZA ULLOA (ELORRIO, 1999) TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Aroa Gorostiza txirrindularitzara bueltatu da 26 urtegar, bizikleta utzi eta bost urtera. Euskadiko txapelketa irabazi du eta Espainiako Kopako proba batean bigarren izan da



Aroa Gorostiza Elorrioko plazan.

aurrera egin zuten. Azken kilometroan aurrekoak harrapatu nituen momentu berean Sophia Sammons-ek erasoa jo zuen eta bakarrik helmugaratu zen. Lehentxoago harrapatu izan banitu irabazteko aukera izango nuelakoan nago, baina oso pozik nago emaitzagaz.

Orain bost urte zergaitik utzi zenuen txirrindularitza?

Bizkaia Durango taldean nengon orduan. Pandemia garaian dena geratu zen eta ez genekien Giroa egongo zen ala ez. Ni neu oso zorrotza eta exigentea izan naiz beti neure buruagaz. Dinamika txar batean sartu nintzen; arrabolatik ia jaitsi ere ez nintzen egiten eta ez nuen asko jaten. Elikadura jokabidearen nahasmendua izan nuen. Kiro-lari profesionalok kalean entrenatzea baimendu zutenean gauzak ez zihoazela ondo ikusten nuen. Aitak "nahikoa da! Bizikletari gurpilak kenduko dizkiot eta espezialista batengana joango gara", esan zidan. Halaxe egin nuen. Prozesu berri bat hasi nuen. Urte bian ez nuen bizikleta ikutu ere egin. Hurrengo urte bietan errugbian jokatu nuen, Elorrio Rugby Taldeagaz. Han zebiltzan lagunek animatuta

"URTE BIAN EZ NUEN BIZIKLETA IKUTU ERE EGIN. BESTE URTE BIAN ERRUGBIAN JOKATU NUEN"

batu nintzen taldera. Errugbian denak dira ondoetorriak. Inork ez dizu "ez duzu balio" edo antzerakorik esaten. Horixe zen une hartan behar nuena: emaitzen presiorik bako lagun-giro positiboa. Kirolari berriro heltezko tokirik egokiena izan zen. Errugbiak asko lagundu zidan eta esker oneko nago. Lanean hasi nintzelako utzi nuen. Hurrengo urtean mendiko lasterketa batzuetan parte hartu nuen. **Noiz eta zelan erabaki zenuen txirrindularitzara bueltatzea?**

Orain urtebete Malagara oporetan joan nintzen, neu bakarrik. Pentsatzen ibili nintzen, gogoeta egiten, eta bueltan ziklismora bueltatzea erabaki nuen. Elikadura jokabidearen nahasmendua beti zugaz egongo da, horregaz elkarbizitzen ikasi behar duzu, baina oreka baten barruan sentitzen nintzen. Hasieran talde guztiek ezezkoa eman zidaten. Gerora, Eulen-NUUK taldeak baiezkota eman zidan.

Orain beste modu batera bizi duzu txirrindularitza?

Bai. Orduan oso gaztea nintzen eta ez nintzen hain heldua gauza batzuei ezetz esateko edo mugak ipintzeko. Orain, gauzak barruan gorde beharrean, esan egiten ditut, beti ere modu onean. Taldeko kide denekin komunikazio eta feedback hori izatea garrantzitsua da.

Zertan aldatu da txirrindularitza bost urtean?

Txirrindularien batez besteko mailak gora egin duela esango nuke. Hau da, goi mailako ziklistak beti egon dira, baina hortik beherako maila nik utzi nuenean baino hobea da. Jubilen maila ere oso handia dela uste dut. Honako hau ere ikusten dut orain: gazteek atean eman gura dute saltoa profesionaletera; saltoa eman edo utzi. Mentalitate hori kalte handia egiten dabilela esango nuke. Eta askok mentalitate horregaitik utzi dute txirrindularitza. Bestalde, bost urtean gauza asko onerako aldatu direla uste dut, baina oraindino badago zer hobetu: lasterketen egutegia, kantitatea, eredu... Arlo pertsonalean, taldeko gazteena nintzen lehen, eta orain nagusia naiz. Beste rol bat dut eta rol hori hartu gura izan dut: irakastea, gidatzea, laguntzea... Taldeak konfiantza hori eman dit eta oso pozik nago.

Arroitauregi eta Alonso munduko onenen artean

PILOTA Eskualdeko pilotari bi protagonista izan dira Euskal Pilota Selekzioak Nazioarteko Federazioaren munduko txapelketa batean lortzen duen lehenengo dominan: David Alonso zornotzarra eta Ibai Arroitauregi iurretarra. Brontzea irabazi dute, Argentinan

Joseba Derteano DURANGALDEA

Ibai Arroitauregi iurretarrak eta David Alonso zornotzarrak nekez ahaztuko dute Argentinan jokatu den 23 urtez azpiko munduko txapelketa. Eskuz binaka brontzezko domina irabazi dute eta Euskal Selekzioari lehenengo domina ofiziala eman diote Nazioarteko Pilota Federazioko munduko txapelketa batean.

Espainia menderatuta esku-ratu zuten domina, joan zen zapatuan. Arroitauregi eta Alonso set bitan gailendu ziren: 15-11 / 15-10. Eskualdeko bi pilotariek gainera, Unai Manterola hernaniarrak eta Eneko Sorondo donostiarrak osatu zuten eskuz binakako laukotea.

Argentinako hitzorduren aurretik, Arroitauregi Europako txapelketan aritu zen, Belgikan, eta bere taldekideekin batera hiru domina eskuratu zituen: urrea Joko Internazionalen, eta zilarra One Wallen eta Ilarguesen. Asteon 19 urte egin di-



Arroitauregi eta Alonso argazkiaren erdian, selekzioko gainerako kideekin. EEPF

tuen iurretarrak argi du dominak nori eskaini: "Alde batetik, aitari [Kepa Arroitauregi] eskaintzen dizkiot. Ofizialtasunaren alde lan handia egin zuen. Bestetik, orain gutxi joan zaigun Ander Martinentzat dira".

Argentinan eskualdeko beste ordezkari bat ere aritu da: Nico Ortiz, Garain bizi den iurretarra. Gurasoak argentinarrak ditu eta Argentinako selekzioagaz lehiatu da. 16 urteagaz debutatu du munduko txapelketan.



Martxako zikloturista bi iazko aldian helmugaratzen. ANBOTO

Ganbarru zikloturista martxak bigarren aldia beteko du zapatuan

TXIRRINDULARITZA Ibilbide bi egongo dira, 120 kilometroko luzea eta 80 kilometroko laburragoa

J.D. DURANGALDEA

Abadiñoko Ganbarru txirrindulari elkarteak antolatzen duen Ganbarru zikloturista martxak bigarren aldia beteko du zapatu honetan.

Aurten ibilbide bi egongo dira aukeran. Biak 08:30ean hasiko dira, Zelaieta Herri Eskolaren ondoko aparkalekutik. Ibilbide luzeak 120 kilometro ditu, eta 2.260 metroko desnibela. Ibilbidean zehar Ixua (Etxebarri), Elgeta (Ermua), Krutzeta (Aramaio) eta Santikurutx (Durango) mendateak igaroko dituzte. Ibilbidearen hasieran Abadiñotik,

Elorriotik eta Berriztik ibiliko dira Markinarantz zuzendu aurretik. Ondoren, azken txanpan, Legutiotik sartuko dira berriro Durangaldean. Otxandio pasatu, Urkiola jaitsi eta helmugara joko dute.

Ibilbide laburragoak 80 kilometro eta 1.515 metroko desnibela ditu. Ibilbide honetan, parte hartzaileek Ixua eta Elgeta gainak igaro beharko dituzte. Kasu honetan, Kanpanzarretik sartuko dira eskualdean, martxako azken txanpan. Elorriorik eta Atxondon ibiliko dira Abadiñora joan aurretik.

JOKALDIA



UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

Entrenatzaileak falta dira

Esaldi honekin amaitu nuen 2024ko abenduan idatzitako iritzi zutabea: "Aurreko guztia ezingo zen burutu entrenatzaile barik; miraririk ez da gertatuko. Eta bertan behera geratuko da entrenatzaile berririk batzen ez bada. Tabirako, jokalarien harrobi den heinean, entrenatzaileena era bada. Zenbaki borobiletan 50 saskibaloitako talde daude Durangon, eta denek bere entrenatzaile edo entrenatzaileak dituzte. Hori da proiektuaren oinarri nagusia. Eta kantitatearekin batera, entrenatzaileei lan egokia egiteko formakuntza eta oinarriak eskaintzeko proiektu bat bideratu behar litzateke".

Iaz esandakoak gaurkotasuna izaten jarraitzen du aurten. Geroago eta entrenatzaile gutxiago dago gaur egun. Urteak aurrera doaz eta eurekin batera, entrenatzaile modura aritzen direnak ere urteak egiten ari dira. Hainbat urtez jarraian aritu direnei, euren bizitzaren zati garrantzitsua izan bada ere, lehenago

"HAINBAT URTEZ ARITU DIRENEI ERE HELDUKO ZAIE UZTEKO MOMENTUA ETA ERRELEBOA ESKATUKO DUTE"

"ENTRENATZAILE ARITZEKO PREST DAUDENAK ERE BADAUDE. GAZTEAK ETA GOGOTSU HASI DIRENAK"

edo geroago heldu(ko) zaie uzteko momentua, eta erreleboa eskatuko dute. Benetan esanguratsua da Tabirakoko talde nagusi bien entrenatzaileak, bata Zumarragakoa eta bestea Gernikakoa izatea. Eskerrak hemen direla! Mutilen bigarren taldea, oster, entrenatzaile barik dago, adibidez. Noiz arte horrela? Betidanik saskibaloitako klubaren ardatz izan dena kamuts dago momentu honetan.

Alde positiboak ere badira. Zorionez, entrenatzaile lanetan aritzeko prest daudenak ere badaude. Gazteak, baina euren aldetik prestutasun osoa dutenak eta entrenatzen gogotsu hasi direnak. Transmisioaren adibide dira eta sekulako meritua dute. Euren esku izango da, epe ertainera, gure kirolaren nondik norakoa.

Honi guzti honi aurre egiteko, ahalik eta lasterren heldu beharko zaio gai honi. Irtenbideak bilatu beharko dira. Oinarritzkoa da.

GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 26, BARIKUA	
09:00-09:00	
Bazan, Uribarri 5 - Durango	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
IRAILAK 27, ZAPATUA	
09:00-09:00	
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
IRAILAK 28, DOMEKA	
09:00-09:00	
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
IRAILAK 29, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Mugica, Andra Maria 9 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
IRAILAK 30, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
URRIAK 1, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	
URRIAK 2, EGUENA	
09:00-09:00	
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
09:00-22:00	
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño	
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza	

ZORION AGURRAK

	Jon Zorionak, Jon! 12 urte ja gure futbolistak! Espero dogu egun oso ona pasatzie eta asko disfrutatzie familiagaz eta lagunekin. Asko maite zaitugu! Musu pilo!a!
	Eneko Irailaren 28an gure Eneko k 5 urte egingo ditu. Segi hain alaitxu eta politxe izaten. Zorionak eta maite zaitugu!
	Haizea Gaur Haizearen urteguna da, 23 urte ja! Ama, Jabi, Julen, Aratz, Amets, Maguie, Oreo, Goku eta Booren partez.
	Libe Zorionak, Libe ! Segi orain arte bezain maitagarria eta alaia izaten. Asko maite zaitugu. Muxu erraldoi bat etxekoan partez!
	Ane Gure etxeko txikitinak 7 urte egin zituen astelehenean. Zorionak, Ane!



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Lur (1034.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatz: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitzez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/ zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

OROIGARRIA

URTEURRENA



Anton Uberuaga Zabala 'Txatue'



Hamabost urte zu barik bizitzen eta hemen jarraituko dogu zeurekin bizitako oroitzapenak bihotzean batzen; gogoratzen dena ez baita inoiz hiltzen. Asko maite zaitugu.

Etxekoak

Mallabian, 2025eko irailaren 28a

2.500€ IRABAZI



Atxikitako establezimendu-
duetan erosten

- 5 herri: Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta
- 500€ herri bakoitzean 24 ordutan erabiltzeko

Irailaren 29tik
urriaren 12ra arte
**Sartu, erosi
eta irabazi!**

Zozketaren oinarriak
labur.eus/ongi-etorri-zozketa

KORAPILOAK
Hazkuntza eta hezkuntza inguruko
irakurketa kluba Mireia Delgadorekin



Urria-abendua
bitartean,
astearteetan
18:30-20:00



Okm:
batzen gaituen
distantzia

anboto
kide

**Ikasturte hasierarekin batera,
atera etekina Anbotoren
abantaila eta deskontuei!**

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea
%15 eko deskontua saio solteetan.

**HITZ
LIBURU-DENDA**

%10eko deskontua euskarazko liburuetan.

**IURRETA
KOPISTEGIA**

%5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
%5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

**PSIKOLOGIA
AMOREBIETA**

%20ko deskontua zerbitzu guztietan.

**URRIKE
LIBURU-DENDA**

%5eko deskontua liburuetan.
%10eko deskontua papergintzan.

**URTXINTXA
JOSTAILU DENDA**

%5 eko deskontua erosketa guztietan.
%10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.



**Atera
etekina
txartelari!**

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!





LAU-HORTZA

MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

Bidaien arteko bidaia

Ospakizunetakoak, lanekoak, laburrak, luzeak, bereziak, astunak, hunkigarriak... Zenbat buru hainbat bidaia mota esan liteke. Sarritan estres eragileak ere bai. Zirrargarriak gehienetan, itxaropentsuak zenbaitetan...

Egiten ditugun bidaiak egiten ditugula, aurretik ondo antolatuta edukitzen ditugu asko; horra hor prestaketaren emozioa eta bidaiaaren hasiera; non, zer, nola, noiz eta norekin egin. Edo ezinegona eta urduritasuna ere eragin lezake, agian.

Beste bidaia batzuk tupustean agertzen dira, ezustean, guk programatu barik, bai ala bai egin beharrekoak aurrera egingo badugu. Izan familian, lagunartean, izan Gazara laguntza behar dutenentzako bidaia.

Zer desberdinak diren batzuk eta besteak! Aisialdian, gozamean, mundua puntarik punta zeharkatzean oinarritzen dira programatutako asko. Besteak, oster, ezustekoak direnez, euren gozamina eta zoriona lortutako emaitzetan antzeman beharko ditugu.

Badute baina komunean denek zerbait: bidaia ondo amaitzea gura dugu denok. Bakoitzak aukeratu edo egokitu zaion ibilbidearen amaierara ondo, pozik iritsi. Horrexetan nago hegaldiari begira nagoen bitartean. Zenbat egongo zareten nor bere bidaia egiten!

Batzuetan bakarrik gozatzea gustatzen zaidan arren, horrela-koetan nahiago lagun onak alboan.

AKUILUA

"Orozketako auzo eskola elkargunea izan da beti"

NEREA BEASKOETXEA ETA JOSE TXINTXURRETA OROZKETAKO ESKOLAKO IKASLEAK

Orozketako auzo eskolaren mendeurrena ospatu zuten irailaren 21ean. Eskola 1925ean sortu zen eta 1987ra bitartean hainbat belaunaldik ikasi zuen bertan

Aitziber Basauri IURRETA

Nerea Beaskoetxea Sarrionandia (Iurreta, 1982) eta Jose Txintxurreta Alberdi (Iurreta, 1931), Orozketako auzo eskolako belaunaldi biren isla dira. Jose lehenengo ikasleatariko bat izan zen, eta Nerea azkenetarikoa. Biek oroitzen politak dituzte eskolan bizi izandako urte haie-taz. Auzotarrentzat bizimoduaren parte izan da beti auzo eskola, elkargune bat. Gaur egun ere halaxe dela diote.

Auzo eskolaren mendeurreneko ospakizunak zelako oroitzenak ekarri dizkizue gogora?

Nerea Beaskoetxea: Oroitzapen politak. Horixe zen domekan elkartu ginenon artean zeresana. Gure mundua zen. Aste barruan eskolara etortzen ginen, eta domeketan mezara aitita-amamekin. Ordurako ermita ez zen erabiltzen. Auzoko elkargunea izan da beti.

Jose Txintxurreta: Pozik eta ilusinoagaz joaten ginen eskolara, olgau egiten zen eta; etxean ezin zen. Aitak eskolarik barik izten gintuen etxean batzuetan, idiak iturrira eroateko edo gol-dan egiteko. Domeketan, meza ostein, abadeak dotrina erakusten zigun ermitan.



**"ILUSINOAGAZ
JOATEN GINEN
ESKOLARA, OLGAU
EGITEN ZEN ETA;
ETXEAN EZIN GENUEN"**

Zenbat urte egin zenituzten bertan?

J.T.: 3-4 urtegi hasi nintzen eta 13 urtera arte egon nintzen. 14 urtegi lanean hasi nintzen, Durangon. Amak dozena bat arrautza eta dozena bat txorizo ordaindu zituen ni Olman beharrean hasteko. Eskolan, Luziagaz, *sumar-restar-multiplicar* eta horre-

lakoak ikasten genituen, denerik apurtxo bat. Pilotxo bat ginen: Iparragirre baserrikoak, Florentino, Bixenti, Kristobal, Marcelino... 09:00etatik 12:00etara joaten ginen. Zortzi neba-arreba ginen gu eta denok ikasi genuen han. San Andresetik, Iurretatik eta Bernagoititik (Zornotza) ere etortzen ziren.

N.B.: Urte gutxian egon nintzen ni, bost-sei urtegi Kurutziaga Ikastolara joan nintzen eta. Al-daketa handia izan zen, baina polita ere bai. Beste umeekin alderatuta, aurreratuta geunden. Igual irakaskuntza pertsonalizatuagoa izango genuen. Ume gutxi ginen eta irakasleak arre-ta handiagoa jar zezakeen gudan.

Adin askotariko umeak zineten.

N.B.: Bai, denok elkarregei ikasten genuen. Esther zen gure irakaslea. Oso hurbilekoa zen eta oso gogoan dut. Eskola kanpoan olgetan ginen, eta gogoan dut fluorra ematen zigula jolas-or-duetan. Eta bi-hiru irteera egin genituela ere gogoan dut, kostal-dera eta Gabonetako parkera. Bere etxera ere eraman gintuen behin, eta bere alaba ezagutu genuen. Eskolan inoiz bazkaldu ere egiten genuela dut gogoan.

Sasoi gogorrak izan ziren mutiko-takoak, Jose?

J.T.: Ez, geu ginen okerrak (barrez). Beti izan naiz burugogorra! Ez nintzen oso ikasle ona. Ariketalarria izan nintzen, hiru urtean Bizkaiko Txapelketa irabazi nuen. Eskolatik irten, etxera joan, jantzi, eta arineketan joaten nintzen, Durangotik edo San Andresetik egiten nuen buelta. Behar egitea tokatu zait eta ez dut izan ikasteko aukerarik. Gaur egun, ikasketarik barik ez dago zereginik.

Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:
sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa